



JOSEBA OTAEGI ▶ AIZKOLARIA

«Txapelketarako ilusio gehiagorik nuen ebakuntzaren ostean»

ZIZURKIL ▶ Hirugarren Mailako txapela irabazi du aizkolariak bai eta Bigarren Mailarako txartela ere

IGOERA ▶ «Orain dana da berria; ikusi egin beharko dugu nola moldatzen naizen maila berrian» ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

LABek deia egin du «atxiloketak salatzeko»

Mobilizazioetara deitu dute etzi, 11:00etan ▶ 6

ALTZO ▶

Zuhaitzen onddoak ezagutzeko erakusketa

Udaletxeko lehen solairuan izango da ikusgai ▶ 5

LEITZA ▶

Aurrerak beste hiru puntu lortu ditu

Denboraldiko bigarren garaipena lortu dute ▶ 7

TOLOSA ▶

Tolosa Aralar taldearen hasiera ezin hobea

Urdaneta taldearen aurka irabazi zuen ▶ 3



Samaniego ikastetxeko eraikin berria inauguratu dute

TOLOSA ▶ «Ingurumena zaintzen duen» eraikin berria inaurtu zuten atzo —irudian, zinta mozteko unea—. Bertan izan ziren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburu den Esther Larrañaga; Tontxu Campos, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Onintza Lasa eta

Oscar Renedo, zinegotziak; Itxiar Etxeberria, Samaniego LHiren Zuzendaria, eta Xabier Maiza, Samaniego LHiren Guraso Elkartearen Lehendakaria. Eraikin berriak ingurumena zaintzen duen berezitasunak ditu, besteak beste, haize errota, eguzki panelak eta baratzeak. E. EZEIZA ▶ 2

HEZKUNTZA ▶

Samaniegoko eraikin berria «bataiatuta»

Atzo inauguratu zuten, «ingurugiroa zaintzen duen» ikastetxe berria

ESTI EZEIZA

2005eko uztailaren 7an lehen harria ipini ondoren, atzo inauguratu zuten ofizialki Samaniego ikastetxeko eraikin berria. Bertan izan ziren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburu den Esther Larrañaga; Tontxu Campos, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Onintza Lasa eta Oscar Renedo, zinegotziak; Itxiar Etxeberria, Samaniego LHiren Zuzendaria, eta Xabier Maiza, Samaniego LHiren Guraso Elkartearen Lehendakaria.

Ekitaldiaren hasieran, eraikuntzaren diseinuaz arduratu den Juan Labayen arkitektoak eraikina erakutsi zien bertaratu ziren guztiei, xehetasunak azalduz. Jarraian, Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso bat abestu zioten eraikin berriari, eta beste batzuk, aureskua

dantzatu zieten, hara hurbildu ziren agintariei. Azken hauek hitz egin ondoren, zinta mozketari ekin zioten. Denak ere, gus-tura agertu ziren Samaniego ikastetxearen «zati» berriekin. Itziar Etxeberria zuzendariak azaldu bezala, aurrekoa txiki-geratu zaie eta eraikin honek haur gehiago hartzeko balio du. Bestalde, ikastetxea eraikitzeko garaian, ardatz nagusietako bat ingurugiroaren zainketa izan da. Bestalde, guraso elkartearen zuzendariak eta Jokin Bildarratz alkateak eskerrak eman zizkieten irakasleei egindako lanagatik.

Ingurugiroa zainduz

Etorkizun ekologikoago baten alde, eguzkia ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu dira. Hala, eguzkiaren berotasunak haizea eragiten du, horrek, era berean, haize errotaren hegalei eragiten die, eta depositoak



Kolore biziak ditu kanpoaldetik eraikin berriak. E. EZEIZA



Jokin Bildarratz alkateak hitz egin zuen ekitaldian. E. EZEIZA



Samaniegoko ikasleek aureskua dantzatu zuten. E. EZEIZA

beretzen dituen ur-zirkloaren motorra.

Eraikin berria egiteko garaian, ingurumenarekiko ardurara handiz jokatu dute, horregatik, zenbait berezitasun ditu honek. Hasteko, haize errota bat ipini dute. Honek barruan turbina bat du eta bidak ematen dituenean korrante elektrikoak ekoizten du. Eraikuntzaren alde batean dauden eguzki-panel fotoboltaikoek berriz, energia elektriko garbia ekoizten dute, kutsadurarik eragin gabe. Bestalde, kanpoaldean barate bat dago eta landareei asko du. Hauek itzala ematen dute eta haizearen indarretik babestu. Hala, hortik sortzen diren hondakin organikoekin konposta egiten dute.

Ikastetxearen goiko aldean kokatuta dauden eguzki panel termikoek eguzkiaren berotasuna pilatu egiten dute negutegi txiki batzuen bidez, horietatik ura pasatzen da eta beraz, berotu. Hegoaldera ematen duen zatian dauden beirateek eta Tronbe hormek ere negutegi antzeko funtzioa betetzen dute, eta barrualdetik dagoen ura berotzen dute. Teilatua berriz, laua da eta euri ura bertan pilatzen da. Horri esker isolatu eta landareak eta arrainak bizirik irauten dute. Soberan dagoen ura bildu eta komunetarako eta urretzetako erabiltzen da. Azkenik, eraikinaren barrualdean dauden material gehienak birziklagarriak dira eta ez toxikoak.

KULTURA ▶

Amaya Arberas sopranoa entzun ahal izango da bihar iluntzean, Zerkausian

Udalak antolatutako ekitaldien baitan, 19:30ean izango da kontzertua

E. EZEIZA

Amya Arberas sopranoaren ahots ezitia izango da entzungai bihar 19:30ean, Zerkausian.

Abeslari donostiarrak Gipuzkoako hainbat abesbatzatan egin zituen bere hastapenak. Ondoren, Donostiako Orfeoak bultzatuta, kantu



Amaya Arberas sopranoa. HITZA

ikasketak hasi zituen Edurne Agerrirekin. 2005etik hona, maiztasun batekin, New Yorkera joaten da Dodi protero abelariaren eskoletara. 2002an hasi zen profesional mailan, opera lirika kantatzen.

Biharko emanaldian, euskal kantuak nahiz kanpokoak abestuko ditu, emanaldiak bi zati izango dituelarik. Lehendabizikoan besteak beste, R. Hahn-en *A Chlois*, G. F. Haendelen *Oda a sta Cecilia* eta *Se pienta di me non senti* entzun ahal izango dira. Bigarren zatian, Iparragirreraren Hara nun dira; J. Guridiren *Ala baita*, G. Rossiniren *La Promesa* eta Mozarten *Padre Germania* abestuko ditu.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iritzi duzu Voith-Gorostidiren inguruan azken aldian sortu diren zalantzez?

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62ra.

KIROLAK ▶

Batzuk irabazteko, besteak galdu behar

Tolosa CFko 9 futbol taldeetatik, lauk irabazi egin dute eta beste horrenbeste galdu

E. EZEIZA

Tolosa CFko bederatzitik futbol taldeek izan zituzten partidak asteburuaren. Hauetatik lauk irabazi egin zuten, beste horrenbeste irabazi, eta azkenik, batek, berdindu.

Hirugarren mailako mutilek Baskonia izan zuten aurkari, eta banako emaitzarekin amaitu zuten. Maila bereko nesken taldeak ez zuten garaipeirik lortu asteburuaren. Zarrutuzen jokatu zuten hauek, eta 2-0eko emaitzarekin etxeratu ziren. Lurraldekoek, 1-0 irabazi zioten etxean, Urniebari. Jubeniletan, Estatuko Ohorezko Mailan, 0-1eko alde-

arekin galdu zuten tolosarrekin, Antiguakoaren kontra. Jubeniletan Ohorezko Mailan berriz, gauzak hobeto ateratu zitzaizkien, eta hauek 1-2 garaitu zituzten Euskaldunako mutilek.

Kadeteen Ohorezko Mailan Tolosak erraz garaitu zituen Herrerako Sportingekoak, 3-0 irabazi baitzuten etxean. Kadeteen lehendabiziko mailan aldi, egurra jaso zuten etxekoek, 2-7 irabazi baitzieten Ostadarrekoek.

Infantilen Ohorezko mailan, Realak izan zuten aurkari urdinekin, eta 3-1 galdu zuten eskualdekoek. Azkenik, infantil txikien mailan, 3-1 irabazi zioten Real Union-i.

POLITIKA ▶

Batzarra ezker abertzaleak deituta, gaur

Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, 20:00etan, Tolosako udal pleno aretoan. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa egitearekin batera urteko plangintza aurkeztuko dute bertan. Herriarrak batzar horretara joateko deia egiten dute.

HEZKUNTZA ▶

Hitzaldia, adimen emozionalaren inguruan, bihar

Urteko Bizikidetzeta Positiboaren baitan, bihar, hitzaldia izango da, 18:30ean, Hiruki-de Jesuitinetako aretoan. Kompetentzi intrapersonalak, autokontzientzia, autoerregulazioa eta autonomia pertsonalaz ariko da Jose Antonio Gonzalez Foru Al-dundiko Adimen Emozional-eko programaren koordinatzailea.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

Tolosako Zerkausi azoka, folklore hutsa?

Tolosako udaletxean, teoriar behintzat, larunbateroko zerkausiko merkatuaz harro-har-ro agertzen zaigu; ehunka pertsona, bai herrikoak, bai kanpotarrak erakartzen dituelako, herriari bizia ematen diolako, baserria, euskal ohituren oinarria, mantentzen laguntzen duelako...

Hau dela eta, bultzada on bat emateko, kristoren obrak egin zituen; txukun-txukun jarri, beirate handiak, sarrera berriak, orain mantel eta mahai berriak jartzekotan daude... Baina, hau guztia, zertarako? Bertara, urte osoko larunbat guztietan jaisten diren baserritarrak gaizki eta errespetu gutxiz tratatuak izateko? Honen adibide, irailak 15, larunbatean, gertatutakoa da. Larunbat guztietan bezala, jaitsi, eta goiz honetan zerekin topatu ginen? Ba azken urteetan, Tolosan eta

inguruko herrietan ematen ari den kanpoko azken modarekin, Garagardo Festarekin. Han zegoen kokatuta, Zerkausiko azokan, eta guk ezertxo ere jakin gabe. Horregatik, nola ez, udaletxea hain harro dagoen bere baserritar kuttunak, izorrratu behar. Leku falta, postuak txikitu, hauek mugitu, iskanbilak hemendik, nerbioak handik... Bi hitzetan, larunbateko azoka batek, lasai eta ondo joateko beharrezko faktore guztiak. Eskerrik asko!
Noiz arte jasan beharko ditu-

gu horrelako egoerak? Noiz arte, baserritarrok, azken txotxongiloak bezala sentitzen jarraituko dugu? Alkate jauna, jakin ezazu, horrelako beste egoera bat ez dugula jasango. Jokatu nahi baduzue, zuen erronka hartzen dugu eta gure kartak mugitzen hasiko gara. Aski dal Zerkausiko azoka ez da folklorismo hutsa. Errespetu handiz agurtzen gara.

AITOR OÑATE (LEUNDBERRI BASERRI KOLEKTIBITATE ETA TOLOSA MERKATUKO BASERRITARREN BATZORDEKO KIDEA) ▶ BEIZAMA

SASKIBALOA ▶

Tolosa Aralar bikain lehen partidari

69 eta 64 irabazi zuten tolosarrek Urdaneta talde bizkaitarraren aurka

ERREDAKZIOA

Garaipenarekin hasi du Tolosa Aralar saskibaloia taldeak denboraldi berria. Aurrendenboraldi kaxkar baten ondoren inor gutxi esperatu zuen lehen partidari irabaztea, baina «Kike eta Fernandoren lanak» garaipenera eramane zituen urdinak.

Aurkari zaila zuten aurrean, azken denboraldietan igoera fasea jokatzeraz ohituta dagoen Urdaneta talde bizkaitarra. Garaipenaren gakoa, «partidari hasiera on bat eman eta ia bezala talde lanean aritzean» oinarritu zen. Aurkarietan Llamasos jokalariren lana nabarmendu dute Tolosa Aralar taldekoek, «36 puntu sartu baitzuten, baina horrelakoetan gertatu ohi den bezala, talde lana bakarkako lanari gailendu zitzaion eta garaipena etxean geratu zen».

Lehen laurdenean fin aritu ziren tolosarrak jaurtiketetan. Hiru hirukorekin eta saskipean lortutako saskiratzeekin 23 puntutara iritsi ziren. Bigarren laurdenean gauzak parekatuago izan ziren eta berdinketa izan zen 10 minutuen amaieran, atsedendira 37-27koarekin iritsiz. Hirugarren laurdenean, berriz, berdinketarekin iritsi ziren amaierara (45-45).

Hutsetik hasi beharra zegoen, beraz, azken laurdenean. Iazko konfidantza mantenduz irten ziren zelaira etxeok eta

TOLOSA ARALAR ▶ 69 URDANETA ▶ 64

Jokalariak. Kike (24); Martia (7); Fernando (18); Joseba (6); Kaiet (5); Goar (2); Iñigo (5); Haritz (2); Alberto (0); Alain (0); Gonzi (0); Ion (0).
Partzialak. 23-13; 37-27; 45-45; 69-64.

15-3ko partzial batekin 60-48 aurreratu ziren partida erdi erabakita utziz. Epaileren lanak zeresan handia izan zuten ondorengo minutuetan, baina hala ere, etxeok ez zuten burua galdu eta emaitzari eustea lortu zuten, azkenean 69-64 amaituz. Garaipen garrantzitsua etxeokentzat, eta nabarmen zegoen, harrobiko jokalariei ematen ari zaien aukera. Oraingoan, Alain hegalekoak izan zuten lehen taldearekin jokatzeo aukera eta txapelketa gogor honetan debutatu zuten.

Bestalde, seniorren eta jubenilaren taldeek ere garaipena erdietsi zuten, beraz, gustura daude klubeko ordezkariak. Horretaz gain, nesken taldea da berrikuntza aurten, eta klubetik gogorarazten dute leku libreko badirela oraindik.

Tolosa Aralarren hurrengo neurketarako Errioxan izango da, Universidad de la Rioja taldearen aurka, larunbat arratsaldean, 17:00etan.

ARETO FUTBOLA ▶

Bigarren garaipena Laskoraingoentzat

ERREDAKZIOA

Laskorainek bigarren garaipena lortu du asteburu honetan, 7 eta 5 irabaziz Beti Arin talde zornotzarriari. Beraz, doto ekin dio Laskorainek denboraldi berriari. Estraineiko jardunaldian Bilbon hiru puntu poltsikoratu eta gero, berebiziko garrantzia zuen

pasa den larunbatean Usabalen irabazteak, eta «uste baino neketsuagoa suertatu arren», ikastolakoek bigarren garaipena erdietsi zuten. Lehen zatian bizkaitarrak aurreratu ziren, baina bigarrenean buelta ematea lortu zuten.

Bestalde, lehen maila probintzian Laskorainek launa berdindu zuten Azkoitin.

GIZARTEA ▶

Elikadura osasuntsuari buruz hitzaldia, gaur

ERREDAKZIOA

D'elikatu Elikadura eta Gastronomiaren Interpretazio Zentroak Elikadura-Osasunaren gainean sortu eta bultzaturiko D'elikatu Bizi Gipuzkoako kanpainaren barruan, gaur hitzaldia izango da elikadura osasuntsurako oinarrizko irizpideen inguruan. Tolosako Kultur Etxeko areto na-

gusian izango da, 19:00etan. Bertan, Giza Nutrizio eta Dietetikan aditu baten laguntzarekin, gure elikadura aztertu, baloratu eta hobetzeko asmoz oinarritzko irizpide eta iradokizunak eskainiko dituzte.

Hala, parte-hartzaile bakoitzak *D'elikatu Bizi Sukaldaritza osasungarria* errezetekin osaturiko liburua jasoko du opari bezala.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

JOSEBA OTAEGI ▶ AIZKOLARIA

«Ebakuntzaren ondoren ilusio gehiago nuen txapelketarako»

Joseba Otaegi aizkolariak Hirugarren Mailako txapela jantzi berri du eta, beraz, orain Bigarren Mailan ariko da

IMANOL GARCIA

Bigarren Mailarako saltoa egin du Joseba Otaegi aizkolariak (Zizurkil, 1983). Herenegun Hirugarren Mailako Txapelketa irabazi zuen Jexux Mari Lasaren legorretarrarekin lehia estua izan ondoren.

Espero zenuen irabaztea?

Aurrenekoa eta bigarrena izaten dira Bigarren Mailara pasatzen direnak eta hor sartzeko aukera nituela pentsatzen nuen, baina Jexux Mari Lasaren txapelketa irabazteko faberitoa.

Gustura, beraz, Bigarren Mailara pasatu eta gainera txapelketa irabazi ondoren izan delako.

Bai, noski. Irabaztea beti ondo dago, baina mailaz igotzeak ematen du poza.

Lasa eta biok nahiko parekatuta ibili zineten. Gero berari adarra ateratu zitzaion.

Adarra niri ere ateratu zitzaion. Gehienei ateratu zitzaigun adarrak. Egurrak nahiko onak ziren, baina zikin xamarrek. Lasarekin nahiko parean ibili ginen, lau-bost segundoko aldearekin. Azkeneko egurrean Lasari adarra ateratu zitzaion eta gero aurretik bazuen beste egur bat ondo moztu gabe eta hartara ere joan behar izan zuen berriz. Nik uste bera pixkat jaitsi egin zela eta ni berriz azkartu, eta azkenean berez

atera beharrekoa baino alde handiagoa ateratu nion.

Lehenengo biok dezente denbora ateratu zenuen besteak.

Hirugarren egurrean hasi ginen alde egiten eta azkenean alde ateratu genien.

Bigarren Mailara pasatzeak zer osan nahi du?

Orain dena berria da. Lanak handiagoa dira, jendea hobea eta ikusi egin beharko da nola moldatzen naizen. Hurrengo urtean mailari neurria hartu nahi diot. Ea zer moduz joaten den. Azkeneko biak jaitsi egiten dira berriz Hirugarren Mailara eta aurreneko helburua maila mantentzea izango da.

Aizkolarietako ordaintzen zaizuenare ere igo egiten da?

Hori ikusi egin beharko. Txapelketan gora joan heinean, gehiago kobratzen da. Horretan Lehenengo Mailara igotzen direnek gehiago nabaritzen dute, baina Hirugarren eta Bigarren Mailaren artean ez dago hainbeste ezberdintasunik. Hori bai, Bigarren Mailako txapelketan ondo aritzen denak, erakustaldi gehiago egin ohi ditu.

Garaipen hau izan daiteke aizkolari bezala lortu duzun garrantzitsuena?

Urrezko Aizkolarien Txapelketan lortutako garaipenak ere ederrak dira, baina garaipen honek mailaz igotzea suposa-



I. GARCIA

zten du. Lehenengo urteetan Urrezko Aizkolarien Txapelketa prestatzen aritzen nintzen neguan eta askotan erreta bezala iristen nintzen txapelketa honetara. Aurten, berriz, otsailan belaunetan ebakuntza egin zidaten eta aurten gogo

gehiagorekin eta askoz hobeto iritsi naiz txapelketara.

Aurten urtean, beraz, ezin izan duzu aizkoran asko aritu.

Txapelketa hau bakarrik egin ahal izan dut urte osoan. Apirilean-edo hasi nintzen aizkorekin, baina forma asko galdu eta nuen, hainbeste denbora geldirik egon ondoren. Gainera bi belaunetan izan zen ebakuntza.

Azkenean, txapelketarako formari iritsi zara.

Nahiko ondo iritsi naiz eta gainera ilusio gehiago nuen parte hartzeko.

Eta txapelketaren ondoren, zer duzu agendan?

Erakustaldi batzuk baditut, baina orain uda pasatu ondoren, jaitsi egiten dira erakustaldi kopuruak. Entrenatzen jarraitu beharko dugu eta ea zer-bait ateratzen den.

GIZARTEA ▶

Ingelesez mintzatzeko aukera

Orain hiru urte Anoeta, Andoain eta Larraul inguruko bost lagun hasi ziren elkartzeko ingelesez aritzearen helburuarekin. Bost laguneko taldea dira eta ohar batean azaldu dutenez, oso gustura hartuko lituzkete kide berriak. Interesa duenak, 943 69 37 31 edo 943 69 41 10 zenbakira dei dezake harremanetan jartzeko.

VILLABONA ▶

'Emakume ikustezina' ikusgai Gurean

Bakerako Lankidetzak Batzarrak Senegali buruzko erakusketa antolatuta du Gurea aretoan. *Emakume ikustezina* izena du argazki erakusketa eta goiz eta arratsalde ikusi daiteke Gurea aretoko erakusgelan, hilaren 22ra arte.

ZIZURKIL ▶

Hernandorena Ipuin Lehiaketa abian jarri dute

Teodoro Hernandorena VI. Ipuin Lehiaketaren oinarriak dagoeneko eskuragarri dituzte interesatuek. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal dute. Bost maila antolatuta dira adinaren arabera. A maila, 6-8 urtekoena; B maila, 9-11 urtekoena; C maila, 12-13 urtekoena; D maila, 14-18 urtekoena eta E maila, 17 urtetik gorakoena. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 30a bitartean, 14:00ak baino lehenago Zizurkilgo udal bulegoetan.

ZIZURKIL ▶

Kantu jiran parte hartzeko gonbitea

Zizurkil Goiko Iriarte Etxean asteazkenean biltzen dira Kantu jiran taldekoak. 19:30ean elkartu eta euskal kantuak ikasten eta abesten aritzen dira. Taldetik azaldu dutenez, «ateak irekita» dituzte nahi duenarentzat.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

AMEZKETA ▶ UDALA

Plenoan telefono hariak eta etxebizitzak aztergai

Webgunea eta cd-a itxura hartzen ari dira

ERREDAKZIOA

Joan den Amezketako bilkuran hainbat erabaki hartu zituzten. Batzorde bileretako informazioa zabaldu ondoren alkateak adierazi zuen, besteak beste, telefonoaren azken hari mozketak sortutako arazoak medio, Udalak zerbait egiteko borondatea azaldu duela herritarren interesak defendatzeko. Idatzi eredu bat prestatu du erreklamazio gisara erabiltzeko.

Etxebizitzetako buruz zegoen interesa neurtzeko galdeketa-zen zirriborroa eman zaie taldeei eta «oraindik ez da erantzunik jaso». Aste honetan banatuko da galdeketa etxeetan.

Alde batetik, DVD bat aterat-

zekotan da kultura batzordea, herriko Talairi buruz. Bestalde, toponimia landu, hemengo tresna eta eraikuntzen inbentario bat egitea interesagarri izango litzatekeela eta hori lantzen hasteko konpromisoa hartu da Udalean. Herriko webgunea dela eta, diseinua bukaeran da antza, nahiz eta osatze lanetan oraindik ere zer egina dagoen. Bertan ez politika, ez erlijiorik ez da sar-terrik nahi.

Euskara lantzeko lantandea eta egitasmoei buruz, 2 helburu dituzte: herriko enpresetako dokumentuak euskaratu eta irakurketa bultzatu eta enpresetan erabiltzen diren dokumentu horien euskarazko erabilpena bultzatu.

ALTZO ▶ NATURA



173 onddori buruzko fitxa daude udaletxeko erakusketan. Etzi arte egongo dira ikusgai. A. IMAZ

Etzi arte zuhaitzetako onddoak ezagutzeko erakusketa dago

Udaletxeko lehen solairuan daude Lekuona mikologoak jasotako 173 onddoen argazkiak eta informazioa

ERREDAKZIOA

Altzoko udaletxean etzi arte, Joxe Manuel Lekuona mikologoak egindako lan handiaren emaitza ikusteko aukera izango da. Onddoei buruzko erakusketa hau 12:00etatik 18:30era bitartean izango da ikusgai, han bertan, udaletxe-ko lehenengo solairuan. Euskal Herrian onddozale eta onddo-biltzaile asko dago, baina ezjakintasuna handia da, horrek batzuetan bizitza bera arriskuan jarritz.

Zuhaitzetako onddoien buruzko erakusketa da, Aralar Parke Naturalean lan egiten duen Lizarrusti Parketxearen laguntzarekin. 43 zuhaitz fitxa ezberdin eta 173 onddo moeta ikusteko aukera egongo da. Fitxetan, argazkia eta onddoa zein zuhaitzaren lagin bat aurkitzeaz gain, familia, generoa, espeziea, bizilekua edo esporean inguruko informazioa daude.

Joxe Manuel Lekuona Aranzadi Zientzia Elkartearen mikologoa eta mikologia saileko zuzendariak osatu du erakusketa, eta lan honen bidez, «herritarro, adituei nahiz zaleei, zuhaitzetan aurki ditzakegun onddo desberdinak identifikatu eta ezagutzeko parada eskainiko digu». Lizarrusti Parketxearen dinamika handi-

nez, «hilabetero saiatzen gara gai bati buruz herri desberdinetan zerbait egiten. Honela, gure eskuetara etortzen diren gauzak, Lizarrustitik kanpora ateratzen saiatzen gara».

Aralar parkeko atea

Lizarrusti Parketxea duela 9 urte ireki zuten Aralar Parke Naturaleko harrera etxe eta dinamizazio gunea izan zedin. Azken bi urte hauetan, Lizarrusti Parketxearen dinamika handi-

tzen joan da, ikuspegi edo lan ildo berriei heldu zaielako. Honela, azken bi urte hauetan hileroko ibilaldi tematikoak antolatu dira Aralar Parke Naturalean inguruko gaiak eta txokoak aztertzeko asmoz. Era berean, ikastetxeentzat heziketa-jarduerak prestatu eta eskaini dituzte. Aurten Lizarrusti Parketxea bera egokitzapen lan batzuegatik itxita aurkitzen da, hain zuzen ere, bertan eskainiko dituzten zerbitzuak hobetzeko asmoz.

AMEZKETA ▶

Bihar, ezker abertzaleak deitutako bilera

Bihar, Amezketako ezker abertzaleak antolatutako bilera izango da 20:00etan, baliointzeko gelan: *Prozesu amalera, eta orain zer?* Ostiralean Seguran egindako atxiloketak larunbatean egindako kontzentrazioan salatu zituzten 35 lagunek.

IKAZTEGIETA ▶

Kantabriara joateko bidaia, jubilatuentzat

Ikaztegietakoko jubilatuek Kantabriara (Espainia) egingo dute bidaia hilaren 17an. Irteera 08:30ean izango da, udaletxe aurretik. Santofña, Isla eta Castro Urdiales bisitatuko dituzte. Izena udaletxean eman daiteke hilaren 15a baino lehen.

UGARTE ▶ JAIK



Udazkeneko egun beroetan izan dira Ugarteko jaiak

N. Urbizu ▶ Harri-jasotzaileak, pilotariak, txakolina, Ingurutxo... Ugarte auzoko astebururik garrantzitsuen pasatu berri da, eta eguraldiaren laguntzaz aurten arrakastatsuak izan dira, jende asko hurbildu baita. Puzgarriak larunbatean arratsaldean izan ziren bakarrik, baina horrek ez zuen giroa zapuztu. ANDER OTEZABAL

Kalean euskaraz hitz egiteko ohitura eta erantzuna lan nahi duzu?

mintzalaguna behar duzu

Informazio gehiago nahi izanez gero:
Vilabonako Euskara Zerbitzua 943 693 501
Zizurkilgo Euskara Zerbitzua 943 692 495

Vilabonako Euskara Zerbitzua
 euskara goxo gurea egizu hozkat!

POLITIKA ▶

«Atxiloketak gogoan» mobilizatzeraz deitu du LAB sindikatuak

Gazte Independentistek bat egin dute LAB sindikatuarekin, etzi 11:00etan «euskal gazteriarri kalera ateratzeko eskatuz»

ASIER IMAZ

Langile Abertzaleen Batzordeak, hau da, LAB sindikatuak, etzi «sentsibilizazio eta mobilizazio eguna» bultzatuko duela jakinarazi du Euskal Herriko lantokietan, *Errepresiorik ez, Euskal Herriak hitza eta erabakia* lelopean.

Lanuzteak azken egunetako atxiloketen inguruan kokatu behar ditu LAB sindikatuak «gogor salatzeaz» gain, «gure herria pairatzen ari den jazar-

pen politiko, judicial eta polizia-larekin behingoz amaitu beharra dagoela» aipatu baitu deialdia zabaltzerako garaian.

«Eragile politiko, sindikal eta sozialen aldetik erantzun zabalagoa» eskatu dute, «Euskal Herriaren aitortpena eta bere eskubideen errespetuan oinarritutako konponbide politikoak exijitzeko».

Atxiloketen inguruan, helburua «euskal independentismoa indargabetzea» izan dela esan dute LABetik; «izan ere,

ezker abertzalearen aurkako eraso zuzena izateaz gain, konponbide politikoak, Euskal Herriaren aitortpen nazionala eta borondate demokratikoaren errespetua exijitzen dugun sektore eta pertsona guztien aurkako eraso zuzena ere bada».

Gazte Independentistek bat

Tolosaldeko Gazte Independentistek bat egin dute LAB sindikatuaren deialdiarekin.

Independentziari atek ireki, Gora Euskal Herria Askatuta izenburupean, idatzi bat kalerratu dute etzi 11:00etatik aurrera grebak deituz ikastetxe guztietan.

Gazte Independentisten oharrean, «operazioa poliziala, argi eta garbi independentziaren aurkako eraso zuzena» dela aipatzen dute. «Operazio polizialak, ezker abertzaleak gatazka politikoa gainditzeko plazaratu zuen proposamena suntsitu nahi izan duela» esanaz. Gazte Independentisten ustez, «Zapaterok gerrarako hautua egin du. Aurka egiteko fase batean sartu gara. Euskal Herriarekin amaitzeko, ezinbestekoa du ezker abertzale ahul bat izatea. Honetarako, eskura dituen makinaria errepresibo guztiak jarriko ditu martxan». Euskal gazteriarri berriz, «borrokara, kalera ateratzea» eskatu die; «geurea dena defendatzera, independentziaren alde lan egitera eta bidea oztopatzen digutenei aurre egitera».

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶
JON ALTUNA



Cadizera
ere
hegazkinez!

Gaizki ohitzen hasita gaude, Eibar bezalako talde apalarentzat bidaia hegazkinean egitea arraroa delako, baina gure aldetik behintzat ongi etorriak dira. Hala ere, Eibar eta hegazkin bidaien arteko harremana ez da oso ona izan orain arte behintzat, izan ere, larunbatean berriro ere bi orduko atzerapena izan genuen hegaldian eta gaueko hamabietan iritsi ginen Cadizera, afaltzen bukatzerako ia ordubata zelararik. Besteetan normalean hamarretarako afalduta egoten gara.

Afalduta ostean dei batek Alegiko Gaztetxean sentiarazi ninduen, Su ta garren kontzertuan, hain zuzen ere. Asko gustatzen zaidan taldea. Mugikorraren bozgorailua ipini eta taldekide batzuek gelan jo ta ke abestia entzuteko aukera izan genuen. Eskerrik asko!

Ezin izan genuen Cadizeko paraje ikusgarrietaz asko gozatu; lagunekin oporretan birritan izana naiz bertan eta bizitako oroitzapen ugari etorri zitzaizkidan bertan. Ederki ibili ginen!

Partidari dagokionez, Cadiz genuen aurkari, Ligako talde indartsuenetakoa eta dudarik gabe espainiar futboleko jarraitzaile sutsuuenetakoa dituen. Txundituta gelditu ginen denak, giro bikaina zegoen «Ramon de Carranza» zelaian: 12.000 ikusle inguru bildu ziren. Bertako peña batek izen euskalduna zeraman; *Al-Andalus Negu Gorriak*, eta hainbat ikurrina ikusi izan genituen Cadizeko jarraitzaileen artean. Horrelako gauzak etetik urruti ikustek poza ematen dio bati. Neurketa irabaztea lortu genuen, 1-2. Behar genuen garaipea zen, azkenaldian emaitzak asko ez baitzuten laguntzen.

Igandeakoarekin lasaitasun pixka bat lortu eta sorzitezkeen kezka alde batera utzi ditugu. Asteburuko betebeharrak beteta, orain gozatzea besterik ez da gelditzen.

POLITIKA ▶



Esteban Esteban Nietoren «borroka gogoan» omenaldian

A. Imaz ▶ Esteban Esteban Nieto omendu zuten Abaltzisketako Larraitz auzoan dagoen monolitoaren aurrean herenegun. Bertara gerturatu zirenek, tolosarraren «borroka eta azken egunak» izan zituzten gogoan; «Esteban eusko gudaria 1999. urtean hil zen, ka-

leratu eta 5 hilabete eta 20 egunera. Espetxeko medikuen utzikeriaren erruz garratutako minbiziaren eraginez». Larraitzen, lore eskaintza, txalaparta doinu, bertso eta Agurra dantzatzeaz gain, «amnistia eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuten». A. I.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaleko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info • Tel.: 943 65 56 95

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak beste hiru puntu eskuratu ditu

Avance Ezkabarteren aurka jokatu zuen eta 3-1eko emaitzarekin denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen



Aurrerak azkeneko 2 norgehiagokak irabazi ditu eta oraingoz zortzigarren doa sailkapenen orokorrean. J.A.

NAIARA GARZIA

Aurrerak denboraldi honetako bigarren garaipena lortu zuen igandean etxean jokatuak norgehiagokan. Markagailua 3-1eko emaitzarekin amaitu zuten Aurrerak eta Avance-Ezkabarterek. Herenegun eskuratutako 3 punturekin Aurrera zortzigarren postura igo da, 8 punturekin, beraz erdibidean dago, orotara 16 talde baitira.

Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «igandeko garaipenak puntu aldetik lasaitasuna eman digu. Gainera, orain arte jokatu ditugun beste partidetan golak sartzeko kostatu egiten zela ikusten genuen, eta igandean golak erraz sartzeko adorea eman digu». Avance-Ezkabarter taldea aurreko denboraldian hirugarren mailan egon zela kontutan hartuta, ez zen leitzarrentzat aukari erraza.

Leitzarrek lehenengo zatian sartu zituzten lehenengo 2 golak. «Oso ongi hasi ginen, hasieratik partida erabat mendean hartuta geneukan». Lehenengo gola Hegoi Bengoetxeak sartu zuen partida hasi eta segituan, eta bigarrena, Unai Olanok. «Beste 2 aukera oso garbiak ere izan genituen, baina lehenengo zatian ez genuen besterik sartu. Aurkariek sortu zuten aukera bakarra

aprobetxatu zuten beraien gola sartzeko». Gauzak honela, markagailua 2-1 zihola iritsi zen atsedenaldira.

Hirugarren gola Mikel Azpiroz Txotxak sartu zuen bigarren zatian. «2 goletako zuloa lortu genuela ikusita, emaitza mantentzea izan zen gure helburua Txotxak gola sartu eta norgehiagoka amaitu arte».

Emaitzekin «pozik»

Oraingoz Aurrerak jokatu dituen 5 norgehiagoketatik, bakarra besterik ez du galdu. 2 berdinketa lortu ditu eta beste 2 garaipen. Azkenaurrekoa izan den asteburukoa izan zen, etxean bertan Urrozterra tal-

dearen aurka jokatu zutenean. Futboleko alde aurretik emaitzak jakitea askotan ezinezkoa dela argi utzi zuen partida honek, Urrozterra taldea sailkapenean azkenetariko postuan joan arren, eta 2-1 irabazi arren, ez baitzen leitzarrentzat partida erraza izan. «Irabazten hasi ginen, eta haiek beste gol bat sartu zuten. Aurkariek guk adina aukera izan zituzten, baina azkenean zorrea izan genuen. Kostatuko garaipena izan zen», dio Aurrerako arduradunak.

Aurrera futbol taldea «pozik» dago denboraldi hasieran lortu dituen emaitzekin. «Ez genuen espero hain ongi hasitea, eta are gutxiago 5 jardunaldi pasa ondoren bi partida irabaztea». Horrela hasteak «lasaitasuna» eman diela gehitu du. «Hasieran puntuak irabazteak lasaitu egiten gaitu, bukaeran beti gauzak estutu egiten baitira. Halere lehenengo bueltan ezberdintasunak beti txikiak izaten dira».

Leitzarrek hurrengo norgehiagoka datorren igandean jokatu dute, Paternainen, Iruña taldearen aurka. «Denboraldia horrela hasita lasaigo goaz hurrengo partidara, baina ez erlajatuta». Iruña taldeak denboraldi honetan jokatu dituen 5 partidetatik bakarra irabazi du.

HASIERA ONA

Oraingoz Aurrerak jokatu dituen 5 norgehiagoketatik bakarra besterik ez du galdu

8. POSTUAN

Herenegun eskuratutako 3 punturekin Aurrera zortzigarren postura igo da, 8 punturekin

PILOTA ▶

Olazabalek eta Barriolak galdu egin dute Eibarren

Leitzarrak uzkuradura izan zuen eta azkeneko tantoak bendarekin jokatu zituen

N. GARZIA

Igandean Eibarko Astelena pilotalekuan Abel Barriolak eta Mikel Olazabalek Capellan eta Laskurainen aurka 6 tanto-rengatik galdu zuten.

Aresoko pilotariak adierazi duenez, «hasieratik galtzen hasi ginen eta pilota dezente joan zitzaizkigun. Gero aurrera egin genuen eta 19-16an ere jarri ginen, baina azkenean ez genuen irabazterik lortu».

Abel Barriolak uzkuradura izan zuen gihar adduktorean. «Aldageletara joan zen eta benda jarri zioten, halere gero ere tiratu egiten ziola esan

zuen», dio Mikel Olazabalek. Leitzarrak partidako azkeneko lauzpabost tantoak jokatu zituen horrela. Hori dela-eta atzo medikuarengana joan zen.

Bestalde, Olazabalek eskuetan izandako lesioa gaindituzat jo du. «Lesioak jada ez dit batere minik ematen, oraindik badaezpada benda jartzen dut eskuan, baina zentzu horretan ez dut inolako arazorik». Leitzako festetan debuta egin zuenez geroztik, 11 norgehiagoka jokatu ditu aresoarrak eta ziurrenik ostiralean jokatu du hurrengo partida, Lekunberrin, bihar festak hasten baitira.

LEITZA ▶ PILOTA

Jaunarena eta Bolinaga DV Torneoan aurrera

Txapelketan gazteenak izan arren, 7 tanto atera zizkieten Eskuderori eta Bergerari



Jaunarenak aurten lehengoz parte hartu du DV Torneoan. A. OTEZABAL

N. GARZIA

Jon Jaunarena leitzarrak eta Ibai Bolinagak DV Torneoko lehenengo norgehiagoka irabazi zuten Eskudero eta Bergeraren aurka. Partida Errioxako Baños de Rio Tobian jokatu zuten eta 22-15eko emaitzarekin amaitu zuten.

Jon Jaunarenak 15 urte ditu eta Ibai Bolinagak 16, beraien mailan txapelketa honetaz zehar ariko diren pilotaririk gazteenak dira, gainontzeko pilo-

tariek 2 edo 3 urtetako aldea ateratzen baitiete.

Jaunarenak azaldu duenez, «aurkariek 7 tanto atera arren, ez genuen erraz irabazi. Hasieran parekatu xamar hasi ginen, baina gero guk aurrera hartu genien». Hurrengo partida hilaren amaieran jokatuko dute, Errenterian eta Iturrioz eta Galartzarekin lehiatuko dira. «Hauek pilotari gogorrik dira eta gu gazteagoak izateak gauzak zailtzen dizkigu», dio Jaunarenak.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Leaburu. *Kontsumo iraukorra, kontsumo arduratsua* hitzaldia emango dute liburategian 17:00etan.
Tolosa. Ezker abertzalearen batzarra izango da, udal batzar aretoan 20:00etatik aurrera. Urteko plangintza izango dute hizpide.
Tolosa. D'Elikatuz Bizi kanpainaren barruan, elikadura osasungarriari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 19:00etan.
Villabona. Biltoki jubilatuek elkarrekin irteera antolatu du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, elkarrekin 23 eurotan.
Villabona. Zaragozako Pilar basilika ikustera irteera antolatu dute urriaren 12rako. Izen-ematea, 630 855500.
Zizurkil. Teodoro Hernandorena 6. Ipuin Lehiaketa antolatu du Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailarako adin guztiak herriarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udalebekeetan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino De Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.
Tolosa. Euskal Herriko kalitateko jateko produktuen erakusketa Kultur Etxean 16:00etatik 20:30era.
Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan (Korreo kalea).
Tolosa. Calcuta Ondoan elkarrekin antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara.
Villabona. *Emakume ikustezina* erakusketa Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Aurrera aterako dugu»

IRURA ▶ Bergarako Ikastolak Irurako Ikastolari lekukoa eman dio; urtebete geratzen da orain Kilometroak 2008 prestatzeko



Bergarako Ikastolaren, Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eta Irurako Ikastolaren ordezkariak —eskubian, Sorkunde Irazu lehendakaria eta Josune Aiestaran zuzendaria— lekukoa ematerakoan. HITZA

IMANOL GARCIA

Orain arte Kilometroen protagonismoa Bergarako Ikastolak zuen, bertan egin baita aurtengo Gipuzkoako Ikastolen festa. Baina, dagoeneko, protagonismo hori Irurako Ikastolak du, herenegun Bergarako Ikastolatik lekukoa jaso ondoren. Josune Aiestaran Irurako Ikastolako zuzendariak lekuko aldaketaren ueña gogoratzen du: «Urdui geunden, lekukoa eskuetan izateak zer suposatzen

zuen jakinik. Baina lekukoa ematearekin batera animoak eman zizkiguten eta egin behar dugun lanarekin disfrutatzeko esan ziguten». Gogoz daudela gaineratzen du: «Herri txikia gara eta oso garbi dugu ahalegin handia egin behar dugula. Denok gaude lana egiteko gogoarekin. Badakigu datorren urteko Kilometroak aurrera aterako dugula eta ondo gainera».

Herenegun ez ziren Irurako Ikastolakoak Bergarara joan lekukoa jasotzera bakarrik.

Batzordeetan dauden 45 lagun joan ziren, Bergaran nola antolatu zuten ikustera eta ahal zen neurrian laguntza ematera. «Ondo joan zen dena», dio Aiestaranek. «Eguraldiak lagundu zuen eta horrek ere asko motibatu zuen jende guztia. Bergarako Ikastolakoek harreman oso onak egin zituzten eta nola antolatu zuten ikusi ahal izan genuen».

Aiestaranek azaltzen duen, «bat-bateko harremana» dute Bergarako Ikastolakoekin. «Batzorde ezberdinetako

kideek harreman zuzena dute Bergarako batzordekoekin. Gainera, Ikastolen artean beti laguntzen gara».

Iruratik joan zen gurasoetako bat Ana Amonarriz izan zen. Ekonomia batzordean hartzen du parte. «Bergarako Ikastolako ekonomia batzordekoekin geldituta geunden aurretik», dio. «Bertan bizitu ahal izan genuen lanak eta antolamendua. Bertakoekin hitz egin, apunteak hartu eta argazkiak atera ahal izan genituen. Oso harrera ona izan genuen. Lagutzeko prest azaldu ziren edozein momentuan».

Animatuta bueltatu dira irurarrak Bergarako esperientziaren ondoren. «Asko animatu gaituzte», azaldu dute Amonarrizek. «Oso inpresio ona jaso dugu». Goiz partean batzordeetako partaideekin egon ondoren, arratsaldean festaz gozatu ahal izan zuten. «Guneak nola antolatuta zeuden ikusi ahal izan genuen, dena giro oso onean», zehaztu du Amonarrizek.

Lan handia gelditzen da, baina gogoz daudela erakusten dute Irurako Kilometroak prestatzen ari direnek. Bitartean, Ikastolako erakin berriaren lanak aurrera doaz eta datorren astean igeltseritzako lanak hastea espero dute.

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte



URTE ASKOAN
 Mireia Arrospide
 Goikoetxandua (Lizartza).
 Atzo 9 urte. Muxu asko.



URTE ASKOAN
 Ekaitz Aramendi Urteaga (Ibarra) Guztion ekinez eta elkarlanean, amnistia eta autodeterminazioa. Ibarra herri ekimena.